

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 253. zenbakia. 2017ko otsaila



Eskolabari Ikastetxea



San Lorenzo Eskola



Ongarai Eskola

**Ermuko
ikasleak
bertsolari**



Anaitasuna Ikastola



IRAZABAL
clínica dental

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitterren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusiboak:



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIAK:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Eneritz Arriaga,
Juanmi Bravo,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Juan Carlos Martín
eta Valentín Mugarza.

ARGAZKIAK:

Aiurri aldizkaria,
Amaia Arginzoniz, Asegarce,
Juanmi Bravo,
Paul Bustindui,
Klemen Corredera,
Estibalitz González,
Asier Inclán, Ikom,
Irutxulo astekaria, Izaro,
Mallabiko Eskola,
Juan Carlos Martín,
Valentín Mugarza,
Sabino Arana Fundazioa,
Euskaltzaleen Topagunea,
Mallabiko Udala, Iñigo
Ugena eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Amaia
Arrondo eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Neskazahar zahar zahar (Entzuteko: www.alboka.es)

Neskazahar zahar zahar
denpora pasatu,
zegaitxik ez zitzanan
lehenago ezkondu?
Iñork ez esan,
neronek ezin esan,
horregaitxik gelditu
nintzan neskazahar.

Ezkondu eta gero
ikusten ditut nik,
euren bizimoduaz
ondo asperturik,
senarraren maleta
eraman eziñik...
Neskazaharrak ez dute
horrelango lanik!



Hilabete honetan...

| | |
|---|--|
| GURETIK MUNDURA4 Asier Inclán (Montevideo, Uruguai) | BOTEPRONTOAN16 Klemen Corredera |
| ERREPORTAJEA5-7 Bertsolaritza Ermuko ikastetxeetan | KIROLZALE17 Iñigo Ugena |
| MALLABIAN ZER?8-9 Energia berriztagarriari buruzko hitzaldia | IRITZIA18 Helikoptero gurasoak |
| MOTZEAN.....10-12 I. Kirol Jardunaldiak Ermuan | ZORION-AGURRAK19 Saldu, erosi edo agurtu |
| ERMUAN ZER?.....13-14 Berbetan Jardunaldiak / Korrika | ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak |
| ESKOLEN TXOKOA15 Mallabiko Eskolako albisteak | KALEKO INKESTA21 Egokituta dago Ermua...? |
| | MARTXOKO AGENDA ..22 |

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Asier Inclán

2015ean ekin zion atzerrian lana bilatzeari. Europako hainbat herrialdetan aritu eta gero, Hego Amerikara egin zuen iaz salto. Asier Inclánek ez du sentitzen oraindik Ermura bueltatzeko ordua iritsi zaionik.

- Zer dela-eta joan zinen Ermutik?

Gaztea naiz, ez nuen inolako loturarik eta esperientzia berriak bizi nahi nituen. Lehenengo Frantziara joan nintzen, ostean Italiara. 2015eko Gabonetan etxera bueltatu nintzen, eta iazko udan Uruguaira etortzeko aukera agertu zitzaidan, 8 hilabetez.

- Erabaki erraza izan zen?

Oso erraza. Nire buruari erakutsi nahi nion gai naizela beste herrialde, kultura eta egoeretara moldatzeko. Gainera gustuko lana dut, eta asko ikasten ari naiz.

- Nola imajinatzen zenuen Uruguai?

Hiri frenetikoa espero nuen, eta egia esan, herri handi baten antzera funtzionatzen du. Gizarte irekia zela pentsatzen nuen etorri aurretik eta hala da, gainera esan daiteke Hego Amerikako herrialderik seguruena dela.

- Zerbaitek jo dizu arreta?

Aldaketa kultural handiagoa espero nuen, baina etxean bezala sentitzen naiz. Uruguaitarrak oso jatorrak dira, euskaldunak maitatuak gara hemen eta lankideek adeitasun handiz tratatzen naute ni eroso sentitzeko. Bestalde, futbola biziki maite dute eta euren herrialdeaz oso harro daude. Erreakia eta



Asier Montevideoko Independenzia Plazan. Atzean, Salvo Jauregia ikus daiteke.

matea dira haien ohitura nagusiak, horregatik, astero biltzen gara sua piztu eta okela jateko, eta matea egunero edaten dugu.

- Zein hizkuntzatan hitz egiten da bertan?

Euren hizkuntza, *charrúa*, duela urte asko galdu zen. Orain gaztelaniaz bakarrik hitz egiten da.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunak, dudarik gabe. Baina Euskal Herrian ditugun inguru naturalak ez ditugu aintzat hartzen etxetik urrun gaudenera arte. Gure ondarea gehiago balioetsi behar dugu.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Goizeko 9:00etatik 18:00ak arte egiten dut lan bulegoan. Amaitzerakoan, Rodó izeneko parkera edo Ramblara (itsas pasealekua) joatea gustatzen zait: mateaz, irakurketaz eta iluntzeaz

gozatzeko leku aproposak dira. Montevideo ekintza kultural anitzeko hiria da, egunero zeozer egiteko aukera dago, eta herrialde desberdinetako neska-mutilok kuadrilla ederra sortu dugu. Asteburuetan herrialdea ezagutzeko bidaiatzen dut. Orain uda da, eta ekialdeko hondartzetara joaten naiz: Cabo Polonio edo Punta del Diablora, naturarekin bat egiteko leku zoragarriak dira.

- Noiz egon zara Ermuan azkenekoz?

Urrian. Lana bukatzerakoan Hego Amerikatik motxilarekin bidaiatzeko asmoa daukat, eta irailean Ermura bueltatu. Baina nork daki!

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Lanaren arabera bueltatuko naiz. Baina gustatuko litzaidake beste urte pare bat munduan zehar lanean egotea.



Montevideo,
Uruguai

x

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AIZ


AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Arantza Plaza eta Peru Vidal, egungo irakasleak.

Bertsolaritza Ermuko ikastetxeetan

2016-2017ko ikasturteak berritasun handi bat ekarri du Ermura: Bertsolaritza ikastetxe guztietan lantzen hasi da aurreneko aldiz. Ikastetxe guztietan diogu, zeren aurrez, makina bat urtez, Anaitasuna Ikastolan landu izan den jarduna izan da bertsolaritza garaian garaiko barruko zein kanpoko irakasleen bitartez. Jon Lopategi, Juanjo Respaldiza edo Kepa Antxia irakasleen urteetako lan isilak dira horren adibide. Gaur egun, Ermuko ikastetxeetan ia 200 haur ari dira astero-astero bertsolaritza lantzen, iaz Bizkaiko Bertsozale Elkartek, ikastetxez ikastetxe bertsolaritzaren proiektua aurkeztu, ikastetxeek beraien oniritzia eman eta Udalarekin proiektua babesteko egindako hitzarmenaren ondorioz.

Gaur egun 2 irakasle ari dira Ermuan ikastetxez ikastetxe bertsolaritza lantzen: Arantza Plaza eta Peru Vidal. Astelehena egun osoa, astearte goiza eta ostegun goizetan ematen dituzte bertsolaritza klaseak. Guztira 7 ordu. "Oso gustura gaudere ikasleekin eta ikastetxeetan jasotzen ari garen harrearekin", aipatzen du Arantzak. Berak darabana neurri batean ikastetxe guztien ardura bere gain nahiz eta ostegunetan, Peru Vidalek Ikastolako 5.mailako taldearekin karga arintzea lortu duen.

Koplak, kantuak... denetarik lantzen dute eta Peru Vidalek aipatzen duenez

"oso erraz barneratzen dituzte ikasleek", darabilten materiala ere oso ondo egokitua baitago. "Euskararen Egunean ikastetxe guztietako umeak elkartu genituen eta oso ekitaldi polita burutu genuen", gaineratzen du Arantzak. Ermuan Bagara egunean ere, ikastetxe askotariko umeek egunerako egokitutako koplak abestu zituzten.

"Baditut plazaz plaza gurasoekin bertso saioretara txintxo-txintxo joaten diren ikasleak ere", dio Arantzak. Beste zenbaitetan oraindik "arrotzago edo urrunago egiten zaie bertsolaritza", gaineratzen du Peruk, baina pixkanaka geroz eta jarrera eta



gogo oparoagoz hartzen omen dituztela ikasleek ikastordua azpimarratzen du.

Oraindik hasi berria den proiektua bada ere, pixkanaka joango da bere fruituak

ematen, eta ea sasoi batean plazarik plaza ibilitako Jon Unanue, Beñat Mallabia edo Julen Sololuzeren ordezkariak ematen diren laster.

Asier Ibaibarriaga

Jone Antsoategi,
bertso-irakaslea



"Iaz apirilean hasi eta 8 ikastaro eman nituen San Lorenzo, San Pelayo, Ongarai eta Eskolabarrin. 8 ordu izan ziren guztira ikastetxe bakoitzean. Sarrera gisa izan zen, eta bertsolaritzara hurbiltzeko aurreneko pausoak landu genituen. Oso gustura aritu nintzen, umeen jarrerarekin oso pozik eta ikastetxeetan ere oso harrera beroa izan nuen. Esperientzia ederra izan zen".

Xabier Irakulis,
bertso-irakaslea



"Nire kasuan 2 urtez aritu nintzen Ikastolan bertso-irakasle gisa. Garai haietan ez zegoen hitzarmenik eta zuzenean Ikastolako gurasoek egindako ekarpenei esker ematen nituen klaseak. Oso gustura gogoratzen ditudan garaiak dira. Iaz hitzarmena lortzeko aukerak ikusi genituen eta Bizkaiko Bertsozale Elkarteko eragilearekin batera, proiektua ikastetxez ikastetxe aurkeztzen ibili nintzen. Ondoren Udaleko zinegotzi eta Euskara Teknikariari aurkeztu genien txostena, egoki ikusi zuten eta oso pozik nago egindako lanak emandako fruituekin".

2016/2017ko DATUAK

5. MAILA

| Ikastetxea | Ikasleak |
|---------------------|----------|
| Anaitasuna Ikastola | 40 |

6. MAILA

| Ikastetxea | Ikasleak |
|------------------------|------------|
| San Lorenzo Eskola | 16 |
| Eskolabarri Ikastetxea | 24 |
| Ongarai Eskola | 40 |
| San Pelayo Ikastetxea | 25 |
| Anaitasuna Ikastola | 40 |
| Guztira | 145 |





ZERMIK

SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 www.zermik.com
 Usatxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

Fernando Aranberri,
Udaleko Euskara Teknikaria



“Ikastetxeetatik eskaera etorri zitzaigun esanez interesa zeukatela bertsolari-tza lantzeko. Bizkaiko hainbat herritan oso egoki lantzen den jarduna da eta euskara sustatzeko, bertsolari-tzak jendaurrean ematen dituen onurak lantzeko edo ideia bat pentsatu eta bat-batean botatzeko oso egoki baloratu zen, eta hala hasi ginen gaia lantzen Bizkaiko Bertsozale Elkartarekin. Ikastetxeak hasi dira poliki-poliki Euskara Egunean edo Bagara egunean bertsolari-tzarekin lotutako aurkezpen txoak egiten eta oraindik hasi berria den dinamika izan arren, aurrera jarraitzea nahiko genuke. Momentuz ikastetxeen aldetik ere oso balorazio onak jaso ditugu”.

San Lorenzo Ikastetxea

“Bigarren urtea da eskolak proiektu honetan parte hartzen duena, eta oso positibotzat hartzen dugu bertsolari-tza euskarazko saioetan lantzea. Alde batetik, euskara eguneroko eskola jardueretatik ateratzeko bide bat delako; bestetik, gure ikasleentzat ezezaguna den kulturaren arlo hau ezagutarazteko. Euskaraz aparte, musika, erritmoa, sormena... lantzeko aukera ezin hobea iruditzen zait”, dio 6. mailako euskarazko irakaslea den Beatriz Izarrak.

Eskolabarri Ikastetxea

“Aurreko ikasturteko azken hilabeteetan bertsolari-tza landu genuen, eta aurten ikasturte osoan lantze-ari ekin diogu. Pozik gaude, eta bertsoak eskolako ekintzekin lotzen saiatzen gara, ekintza isolatua ez izateko. Zaila da umeek euskaraz hitz egitea, eta hau beste bide bat da. Eurentzako ekintza dibertigarria da, motibatu egiten ditu, eta primerako jarrera dute, beti daude prest. Zentzua ikusten diogu, hiztegi aldetik aberasgarria delako eta, aldi berean jolasa bihurtzen delako”, argitu du Kati Urzainkik, 6. mailako euskara irakasleak.

Anaitasuna Ikastola

“Hirugarren ziklo osoan ematen dugu bertsolari-tza, 80 ikasle ingururi, eta pozik gaude. Duela 3 urte egin genuen horren aldeko apustua, Guraso Elkartearen diru-laguntzarekin, baina beste herri batzuetan bezala, uste genuen Udalak finantzatu behar zuela, eta hala da egun. Maila batekin hasi ginen, eta gaur egun 5. eta 6. mailako ikasle guztiek jasotzen dituzte bertsolari-tza eskolak. Euskal kulturaren atal bat ezagutzeko aukera ematen die ikasleei, eta aldi berean euskara lantzeko beste erreminta bat da”, adierazi du Koldo Aranberriak, Ikastolako bertsolari-tza koordinatzaileak.

Ongarai Eskola

“Uste dut bertsolari-tza eskolak ekarpen positiboa egiten diela umei. Eskolatik kanpo ikusten ez duten arlo bat lantzen dute. Horrez gain, sortzeko aukera ere ematen die. Seigarren mailako bi klaseetan ematen dute bertsolari-tza, eta ez nuen uste umeek horrenbeste emango zutenik, baina egia esan gustura daude, eta merezi du”, esan du 6. mailako tutorea den Garbiñe del Valle.

Dorleta Vidal

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

Hamburguesería TITANIC




Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



ENERGIA BERRIZTAGARRIEI BURUZKO HITZALDIA

Mallabiko Kontzejuzarrean Goiener energia berriztagarrien kooperatibako kideek hitzaldia eskaini zuten pasa den otsailaren 16an. Azken asteetan elektrizitatearen prezioen inguruan sortu den kezka eraginda antolatu du herritar talde batek hitzaldia. Hain zuzen, Goiener-ek subiranotasun energetikoa berreskuratu nahi du, egun sektore elektrikoan liberalizatuta dauden esparruetan sartuz: merkaturatzea eta sor-kuntza.

GAZTEENEN IKUSPEGIA ETA BALORAZIOA EZAGUTUZ MALLABIAN

2016. urtean martxan jarri zen "Gaztedi Durangaldea" proiektuan parte hartu du Mallabiak. "Gaztedi Bizkaia 2020" proiektuaren barruan gazteei zuzendutako politika integrala garatzeko asmoa dauka ekimenak. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako proiektu horretan Durangaldeko udalerrri guztiek parte hartzen dute eta bere helburuen artean dago 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ikuspegi eta balorazioa ezagutzea hainbat gairen inguruan, hala nola, hezkuntza eta formakuntza, enplegua, gizartratzea, osasuna, etxebizitza, kultura, sormena, etab. Ekimena dela eta, Mallabiko Udala Ermukoarekin batera ikerketa bat garatzen ari da bi udalerrietako gazteen ikuspegia eta balorazioa ezagutzeko asmoz. Horretarako, hainbat taldekako dinamika garatzen ari dira eta 15 eta 29 urte bitarteko Ermuko eta Mallabiko gazte guztiei luzatu zaie parte hartzeko gonbidapena beraien ikuspegia eskainiz. Dinamika horietatik ateratako informazio eta ondorioak oso baliagarriak izango dira herrietako gazteen bizi kalitatea hobetzera zuzendutako etorkizuneko politikak zehazteko.

AITOR ELORDIK EZIN ETXEAN IRABAZI



Leporaino bete zen Mallabiko pilotalekua pasa den urtarrilaren 27an herriko Aitor Elordi pilotaria ikusteko. Erostarbe urretxuarrarekin bikote eginik, 22-21 galdu zuten Dario

eta Jaunarenaren aurka partidu ero batean. Bi bikoteek maila oso altua erakutsi zuten herriko frontoian ospatutako partiduan, eta azken tantoan, zapore mikaztua gelditu zitzaizen harmailak bete zituzten ikusleei. Bigarren partiduan, Victor Esteban eta Jon Ander Albisu erraz gailendu ziren Mikel Urrutikoetxea eta Ander Imazen aurka 22-18ko emaitzarekin. Errioxarrak eta gipuzkoarrak osatutako bikoteak partidu osoan trinko eutsi zion (Argazkia: Asegarce).

KORRIKA AFARIA

Martxoaren 29an Otxandion abiatuko da Korrika, eta Euskal Herri osoa zeharkatuko duen euskararen aldeko lasterketa apirilaren 7an pasatuko da Mallabitik, 21:55ean. Ekimen horri bultzada eman nahian, herriko Berbalagunek afaria antolatu zuen Izar Gorri elkartearen pasaren 2an. Berbafari berezia izan zen, Mallabiko Korrika antolatzeke baliatuko dutelako. Euskaraz berba eginez disfrutatzea eta Korrikako egitaraua antolatzea izan zen ekimenaren helburua.

EMOZIO DANTZA TAILERRA

Emozio Dantza Tailerrerako 2 talde antolatuko dira, 15 pertsona talde bakoitzeko, bi ordutegi ezberdinetan. Lehengo taldeak 15:00etatik 17:00etarako ordutegia izango du, eta bigarrenak 18:00etatik 20:00etara. Astearteetan izango da ikastaroa, Kontzejuzarrean. Kurtsoa martxoaren 7an, 14an, 21ean eta 28an, eta apirilaren 4an emango da. Informazio gehiago jasotzeko edota apuntatzeko Kultur Etxera jo beharra dago, edota bere 943 17 66 91 zenbakira deitu.

FRONTENIS TXAPELKETA MALLABIAN

Otsailaren 28ra arte irekita dago herriko banakako frontenis txapelketan parte hartzeko aukera. 8 euro gehi beste euro bat partidu bakoitzeko ordaindu beharko dute Kiroldegiko bazkideek. Aldiz, bazkide ez direnek 8 euro eta partiduko beste bi. Buruz buruko txapelketa hau martxoa eta maiatza bitartean liga sistema bitartez izango da. Mailen araberako 8 jokalariz osatutako taldeak egingo dira. Txapelketa AD Mallabia Futbol Taldeak eta Udalak antolatzen dute, eta parte hartzeko zenbakia 669028718 da.

ASTO PROBAK PISU NEURTUAN



Txondor Herri Kirol Taldeak eta Mallabiko Udalak beste urte batez pisu neurtuko asto proba prestatu zuten pasa den otsailaren 18 eta 19an. Herriko Aldape eta Irazolaz gain, Gamiz-Fika, Mendata, Erandio, Iurretta eta Bermeoko asto probalariak bildu ziren bertan. Saioak Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen arautegia jarraitu zuen, 30 minutuko ekitaldi banekin. 300 kilogramo gorako astoak, kantitate hortatik gorako kilobakoitzeko beste kiloko gainkarga zeraman (Argazkia: Mallabiko Udala).

Paul Bustindui

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

Mallabiko Inauteriak 2017

Otsailak 23, osteguna, Eguen Zuri

Umek txitxiburduntzia Eskolan.

Otsailak 25, larunbata

19:00-22:30 Mozorro erromeria: Gauargi taldea, plazan.

Otsailak 28, asteartea

14:30-16:00 Kidam magoa, Eskolan.

16:30 Txokolatada, frontoian.

Antolatzailea: Guraso Elkarte

Ondoren Euskal dantzak.

Antolatzailea: Gazte Alai dantza taldea

17:30-20:30 Erromeria: Ansorregi, Larrañaga eta Lutxurdi, Frontoian.

18:30 Playback - Mozorro lehiaketa.

Sariak:

12 urtetik beherakoak:

Bakarka edo bikoteka: 1) 60€ eta 2) 30€.

Taldeka: 1) 120€ eta 2) 60€.

Sariak truke-txarteletan emango dira.

12 urtetik gorakoak:

Bakarka edo bikoteka: 1) 100€ eta 2) 50€.

Taldeka: 1) 200€ eta 2) 100€.

Sari horiek atxikipen fiskala izango dute.

Antolatzailea: Mallabiko Udaleko Kultura Batzordea.



Argazkia: Mallabiko Eskola.

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

MUGA

KILOGR

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

**ABIAN DA
X. PIROPO LEHIAKETA**

Ermuko Udaleko Euskara Sailak X. Piropo Lehiaketari hasiera eman dio. Parte hartu nahi dutenek euskaraz idatzitako piropoa sortu beharko dute, eta euskara@udalermua.net helbidera edo 616027585 telefonora whatsapp bidali. Hiru kategorია daude: 14 urtetik beherakoak, 14-17 urte bitartekoak eta 18 urtetik gorakoak. Nagusien kategoriako irabazleak ondoko saria jasoko du: bi lagunentzako egun pasa Donostiako La Perlan; zirku-itua, masajea eta menua barne. Gazteek, berriz, 50 eta 100 euroko erosketa-txeke bana jasoko dute. Piropoak aurkezteko azken eguna martxoaren 12a izango da.

**MAITANE EGIDOREN
LIBURUA ESKATZEKO
EPEA ZABALIK DA**

Iazko ekainean Greziako kanpamentuetan egon zen Maitane Egido ermuarra. Bertan, 9 urteko umea ezagutu zuen, Fatima, eta harekin batera *El cuento de Fatima* idatzi zuen. Avant editorialak liburua argitaratzeko asmoa du, baina egon daitekeen eskaera aldeztatik jakin nahi du. Horregatik, 9 urteko umearen bizipenak jasotzen dituen ipuina eskuratzeko asmoa dutenek mezua bidali beharko dute elcuentodefati-ma@gmail.com helbidera (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziz). Liburuak 10 euroko prezioa du eta jasotako diru guztia errefuxiatuen kanpamentuetara bideratuko da.

**I. Kirol Psikologia Jardunaldiak ospatu ziren
Ermuan**

Ermuko FC Bartzelonako kirol-lagunarteak antolatuta, Kirol Psikologiaren inguruko jardunaldiak burutu ziren urtarrilaren amaieran. Kirolean lehiatzeko prestakuntza mentala izan zen jardunaldi horien haria, eta bertan, herriko zein kanpoko kirolari ezagunek parte hartu zuten: Matxalen Ziarsolo eskubaloi jokalaria ohiak, Arantza Moreno xabalina-jaurtitzailak, Imanol Alvarez eskubaloi entrenatzaileak eta José Barquero "Pitu", Villa de Ermua Futbol Eskolako sortzaileak. Era berean, FC Bartzelonako futbolari ohiak den Ricardo Sernak ere parte hartu zuen. Norbanako eta talde kiroletan erabiltzen diren estrategia ezberdinei buruz aritu ziren parte-hartzaileak 4 orduz Lobiano Kultur Gunean.

**Sabino Arana saria jaso du Matxalen
Ziarsolo ermuarrak**

Sabino Arana Fundazioak Matxalen Ziarsolo ermuarra saritu du. Donostiako Bera Bera taldeko kapitain ohiaren konpromisoa, inplikazioa, adorea eta solidaritatea nabarmendu dute, "hori guzti hori irribarre batekin lagunduta beti". Sabino Arana Fundazioko presidente Juan Mari Atutxak eta Erakundeko zuzendaria den Irune Zuluagak eman zioten saria, urtarrilaren 29an Arriaga Antzokian ospatu zen ekitaldian. Oholtza gainean, Ziarsolok hitz politikak izan zituen senideentzako:



"Eskerrik asko berdintasunean hezi nauzuelako eta ametsak egi bihurtzen lagundu didazuelako". Bera Berak transmititutako baloreak ere goraipatu zituen: "Esfortzua, konpromisoa eta ilusioa". Emakumezkoen kirola altxorra dela ere azpimarratu zuen: "Zaindu baino gehiago, bultzatu egin behar dugun altxorra, herri bezala berdintasunean ere aitzindari izan gaitezen, XXI. mendeko erronka handienetariko bat delako". Ekitaldi berean, Mallabiko Orbea enpresak ere saria jaso zuen.

**Martxoaren 20an hasiko da aurtengo Irakurri,
Gozatu eta Oparitu ekimena**

Euskal Birusak eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean antolatutako Irakurri, Gozatu eta Oparitu ekimena martxoaren 20tik maiatzaren 31ra bitartean izango da martxan honako helburu hauekin: irakurzaletasuna sustatzea, liburutegi publikoaren erabilera bultzatzea, euskarazko literatura ezagutaraztea eta euskal liburugintza indartzea, besteak beste. Parte hartu nahi dutenek Udal Liburutegira jo beharko dute, eta euskarazko liburua maileguan hartu. Bueltatzerakoan, fitxa bete, eta erosketa-txekea jasoko dute. Horri esker %35eko deskontua jasoko dute euskarazko liburuak herriko liburu-dendetan erosteko.



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eitxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

DROGETEN
Publizitatea:
943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com



**hartza
eguna**

Otsailaren 24a, ostirala.
18:00etan plazan.
2017

**hartza
eguna**

Antolatzaileak: Euskal Birusa-
anaitasuna ikastola- Eskolabarri-
Kaltxango aek euskaltegia- Udal
euskaltegia- Txindurri

BABESLEA:



ERMUKO UDALA

LAGUNTZAILEA:



CaixaBank

INAUTERIEK ETA MARTXOAREN 8AK BADITUZTE EUREN KARTELAK

Urtero bezala, Ermuko Udalak lehiaketa publikoak antolatu ditu herrian ospatuko diren ekitaldiak iragartzeko. Inauterietako kartel lehiaketan bi gizon izan dira sarituak: Xabier Isasti getariarra eta Xabier Ibarra usurbildarra, eta 500 euroko saria jaso dute. Guztira, 26 lan aurkeztu dira lehiaketara. Martxoaren 8ko kartela aukeratzeko, berriz, 19 irudiren artean bat aukeratu behar izan dute antolatzaileek, eta Esther Alonso leioatarrarena izan da aukeratua. Horri esker, 600 euroko saria jaso du egileak.

2016KO ERCILLA ANTZERKIA SARIA JASOKO DU JESUS CIMARRO ERMUARRAK

Udaleko webgunean irakurri dai-tekeenez, Ercilla saria esleitu berri diote Jesus Cimarrori antzerkiaren eremuan urteko lanik onena egin izanagatik. Madrilen bizi den ermuar hau ospe handiko enpresari eta antzeppen ekoizlea da, La Latina antzetzokiaren kudeatzaile eta jabeetako bat da, eta Bellas Artes antzetzokiaren zuzendaria, besteak beste.

Berbalagunek eta Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi burutuko dituzte ekaina bitartean

Berbalagun eta Gazte Asanbladaren azkeneko urteetako elkar eraginaren ondorioz, martxotik ekainera bitartean euskararen erabilera sustatzeko ekintza sorta prestatu dute. Momentuz, hiru ekimen antolatu dituzte. Alde batetik, martxoaren 11n ospatuko den Sagardo Egunean "Mintzotx" ekimena burutuko da, hau da, sagardo poteoa egin bitartean, euskarazko *tartea* sortu euskaraz aritzeko (13:30etik 14.30era). Bestalde, Gazte Egunean (maiatzaren 27an) Gazte Mintzodromoa egingo da. Bertan, edozeinek parte ahal izango du, baina jorratuko diren gaiak gazteen ingurukoak izango dira. Azkenik, Gazte Berbatalde bat eratuko da martxoan. Oraindik zehaztu gabe dago zein lekutan, egunetan eta ordutan bilduko den taldea; antolatzaileek Sagardo Egunean iragarriko dute horren inguruko informazio guztia.



Martxoaren 16an eskainiko da aurtengo Laburbiraren emanaldia

Zortzi filmek osatzen dute aurtengo Laburbira: *Azken saskia* (Oier Fuentes), *Beti bezperako koplak* (Ageda koplak taldea), *Ihesa* (Alejandro Díaz Castaño), *Elemakarrak* (Ibon Iza), *Jalgi* (Eki Pagoaga), *280°* (UDA films), EUSPOT lehiaketako spot onenak eta *Hileta* (Kepa Sojo). Azken film horretako zuzendaria Antzokira hurbilduko da emanaldi egunean (martxoaren 16an, osteguna, 20:30ean). Gainera, aipatzekoa da Mikel Losada aktore ermuarrak pelikula horretan



parte hartzen duela. Euskarazko film laburren zirkuituaren XIV. edizioa izango da aurtengoa, eta emanaldiak 77 minutu iraungo du. Guztira, Euskal Herriko 30 herritan egongo da berau ikusteko aukera, eta Ermuan, Euskal Birusa eta Euskaltzaleen Topaguneari esker egongo da ikusgai.

Bitsi-denda Tailer propicia Etoju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonia 943 17 04 14

Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

GERALEKU

Bar Geraleku Taberna

Paco autobus geltokiaren ondoan gaude

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

Hainbat hizlarik parte hartuko dute aurtengo Berbetan Jardunaldietan

Inaxio Usarralde, Asier Lafuente, Aitziber Gurutzeaga, Julen Telleria eta Izaro abeslaria Ermuan izango dira laster, euskararen erabileraren inguruko gogoetak sustatzeko. Martxoaren 14a eta apirilaren 4a bitartean burutuko dira antolatzaileek prestatu dituzten hiru ekimenak.

Berbetan Jardunaldiek hamazazpi urte beteko dituzte aurten, eta euskararen erabileraz arduratuta dagoen ermuar ororentzat ezinbesteko hitzordua bilakatu dira. Jadanik prest dago gustu ezberdinak asetuko dituen ekitaldi sorta, eta horietako lehena martxoaren 14an burutuko da.

Egun horretan EMUNeko Inaxio Usarralde hitzaldia eskainiko du: “Non jarri be-

har dugu arreta euskaraz gehiago hitz egin ahal izateko?” Dohaineko berbaldia izango da, baina plaza mugatuak daude, beraz, parte hartu nahi dutenek alde aurretik jakinarazi beharko dute (688632874 telefono zenbakian edo euskalbirusa@gmail.com helbide elektronikoa).

Martxoaren 28an, berriz, Ermua bezalako herri eta auzoetan egin diren esperientzia aberasgarriak eza-



Inaxio Usarralde.
Argazkia: Aiturri.

gutzeko eta trukatzeko aukera egongo da. Asier Lafuente eta Aitziber Gurutzeagak izaera ezberdinak baina helburu komun asko dituzten bi egitasmo proposatu dituzte: “75 ordu euskaraz” (Agurain) eta “Egian euskaraz bizi nahi dugu” (Egian). Eurekin batera, Euskaltzaleen Topaguneko kidea den Manuel Moreno ermuarra arituko da moderatzaile.

Azkenik, apirilaren 4an, elkarrizketa musikatu eskainiko dute Julen Telleria aurkezleak eta Izaro abeslari mallabitarrak. Ekitaldi guztiak Lobiano Kultur Gunean burutuko dira, 19:00etan hasita.



Aitziber Gurutzeaga.
Argazkia: Irutxulo.

Euskararen ezagutza eta erabilerarekin zerikusia duten gaien inguruko topaketa horien antolaketan ondokoei parte hartu dute: Euskal Birusak, Kaltxango AEK Euskaltegiak, Udal Euskaltegiak, Eskolabari Ikastetxeak, Ongarai Eskolak eta Anaitasuna Ikastolak. Laguntzailea, Ermuko Udala.

Dorleta Vidal



Julen Telleria.
Argazkia: Ikom.



Izaro.
Argazkia: Izaro.



DG Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALIZARIAK - OSAGARRIAK
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

Bobby Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

SPARA BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi? GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia

not+vello N°1 fotodepilación
fotodepilación con tarifa plana

FOTODEPILACIÓN
Zubiaurre Kalea, 14
Tel. 943 84 47 04
ermuacentro@nomasvello.com
www.nomasvello.com

20. Korrika ate joka da

Martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean Euskal Herri osoko bideak eta errepideak zeharkatuko ditu Korrikak, Otxandiotik Iruñera. Apirilaren 7an, ostirala, Mallabira helduko da 21:55etan; egun berean, Ermua, 22:18an.

“Zirkorrika” abestiak girotuko ditu 20. Korrikako furgonetako bozgorailuetatik lasterkariak.

Musikari ezagunek parte hartu dute abestian. Xabier Zabala da musikaren egilea, Pirritx, Porrotx eta Marimoto-nsen ohiko kolaboratzailea. Interpretazioan, aldiz, hainbat abeslarik eta musikaririk jardun dute: Mallabiko Izaro abeslari gazteak, Petti beratarrak, Eibarko Miren Narbaizak (Napoka Iria eta beste hainbat proiektutako kantaria), Jurgi Ekizak (Willis Drummond-eko abeslaria) eta Oihana Fernandezek (Afu Iruñeko musika taldeko abeslaria). Jarauta 69 txarangako kideek jarri diote musika, Oreka TXeko kideekin elkarlanean. Doinu balkanikoak gogora dakartzan abestia osatu dute, bizia eta alai. www.korrika.eus atarian daude partiturak, karaokea, instrumentala...

Ermua eta Mallabiko Korrika Kulturala

Korrika guztietan bezala, AEK-k eta Ermuko eta Mallabiko hainbat eragilek makina bat ekitaldi antolatuko dituzte martxoan zehar. Adi egon... Ekitaldi horien berri jasoko duzue zuen etxeko buzoietan martxoaren lehenengo egunetan. Aurkezpen soziala martxoaren 23an egingo da Ermuko plazan eta martxoaren 17an Mallabiko Kontzejuharrean. Korrika apirilaren 7an: korrika txikiak, txokolatea, zirkoa, erromeria eta 22:00ak inguruan Korrika.



Nola parte hartu?

- Antolaketan parte hartuz:
Ermuko eta Mallabiko Korrika Kulturalerako ekitaldiak antolatuz eta sare sozialetan parte hartuz.
- Diruz lagunduz:
Kilometroak eskuratuz, Korrika laguntzailea eginez (Euskaltegian, Infreñu tabernan, webgunean) edo 20. Korrikak ateratzen duen materiala (arropa, petoa) erosiz: AEKren edozein euskaltegian zein Korrika dendetan, edo Korrika igarotzen den egunean bertan.
- Korrikaren berri emanez eta bere ospea hedatuz:
Korrikaren webgunea bisitatuz (www.korrika.eus) eta Korrikaren aldeko sare sozialetan parte hartuz. Korrika kulturalak antolatuko dituen ekitaldietan parte hartuz.
- Korrikan bertan parte hartuz:

Bizkarrekoa jantzita korrika eginez; euskara ikasi, hitz egin eta euskaraz bizi nahi dugula erakusteko. 20. Korrikaren hasieran eta amaieran parte hartuz: zatoz Otxandiora martxoaren 30ean eta Iruñera apirilaren 9an!

- Enpresa eta saltegien-tzat:

Korrika iragartzeko aterako diren euskarriak babes-tuz. Korrikalaria eskuratuz, zein Korrika laguna eginez. Kilometroak eskuratuz.



Ferreteria ANBOTO Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

esonline®

+ @ + +

846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
esonline.es

Bertso zirkuituak 30 urte

Guk ez, oraindik ez; Bertso Zirkuitua da aurten 30 urte bete dituena. Askok direla esan digute eta pozik ari ziren maixu-maistrak hori komentatzen. "Pentsaizu, hogei-tamar...!". Elorrioko saiorako lagun mordoxka batu ginen: bertako bi eskoletakoez gain, Berrizko, Zaldibarko eta gu, Mallabiko 6. mailako ordezkariek. Gure taldea ikasurte honetan hasi da, baina urteroko ipuina da: eskola batek antolatu eta gainontzeko laurak euren gara joaten gara gure bertsoak eskaintzera. Oraingo gaia kuriozkoa izan zen: "Amaitu dira Gabonak, eskolan lehen eguna duzu eta lagunei kontatu diezu zer egin duzun oporretan". Urduri, baina gustura aritu ginen. Martxoaren 10ean, lagunak Mallabira etorriko dira bertsoan; bien bitartean eta Pello Mugarza gure bertso-maixua lagun, guk astean behineko bertso-larritza saiotxoekin jarraitzen dugu, berbeekin eta euskararekin jolasten.



Aterpean

Ikasle, irakasle, guraso, jantokiko begirale eta Udaleko ordezkariak osatzen duten Elkarbizitza Batzordearen ideia eta proposamenak izan dira: bata aterpe bat jartzea eskolako teilatuari, sarreratik gimnasiara bitarteko bidea busti eta guardasol barik egin ahal izateko. Batzuen penatan izan bada ere, euriarekin han egiten ziren ur-putzuak galdu eta ezin dutelako txipli-txaplarik egin! Bigarren ideia ere oso txalotua izan da: jolaslekuko txirristari eskailera batzuk ipintzea eta bere ingurua txukuntzea, gomazko lurra jarriz, margotuz... Eskolako txikienek ez bakarrik, nagusitxoagoek ere pozarren hartu dituzte hobekuntzak.



Mallabia town

Inauterietarako buru-belarri prestatzen ari gara, Amerikako westerna gaitzat hartuta. Gure filme honek bakero, sheriff, cowboy, tabernari, dantzari eta abarrez gain, indiar ugari izango ditu, Haur Hezkuntzako guztiak azal gorri eta luma ugariz joango direlako. Gurasoek ere buru-belarri dihardute ikuskizunera, atrezzoak sortzen, dekoratuak margotzen eta eguna antolatzen. Martitzen-inauteri ailegatzeko denerako, txikienek indiaritasuna eta tribu zentsua ondo barneratuta izango dute, benetakoa dirudien tipi bat egin dietelako gurasoek. Sioux, apatxe eta dakota bihurtuta, orduak eta orduak eman dituzte -euren esanetan izozki-kukurutxo forma duen etxean- etengabeko jolasean: orain tribuaren bizimodua antolatzen, gerora ama eta aita gisa olatzen, afariketako egiten, bisontek ehizatzen, gerrarako prestatzen eta, zelan ez, bakeak egiten!



arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

| | | |
|----------------------|----------------------|--------------------|
| - Luis Cañas familia | - Pazo Señorans | - Txakoli Akarregi |
| - Añada Real | - Vicente Gandía | - Milana |
| - Yllera taldea | - Oriol Rossell | - La Loca Juana |
| - Gomez Cruzado | - Astobiza txakolina | - nitida |

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
 48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
 peluqueriaizaskun.wordpress.com

TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekuakalea 2 - Ermua
 943 17 69 29

KLEMEN CORREDERA

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Oroitzapen oso onak ditut, mutil jatorra eta ona nintzen. Anaiekin egotea gustatzen zitzaidan, nagusiak esaten zidan ertainarekin ez egoteko, ertainak jo egiten ninduen-eta. Antzina umeak kalean botatzen genuen ia egun osoa, gurasoak lanean eta gu gora eta behera kalean. Mendian ibiltzen ginen, eskolan ere, lagun asko nituen; futboleko jolastea gustatzen zitzaidan. Ongarain eman dut bizitza osoa.

- Eta gaztaroa?

Hor aldatu zen dena, 14-15 urterekin hasi ginen tabernetan sartzen. Goiz hasi nintzen helduen gauzak egiten, erre, edan... Uf! Zenbat gauza egiten nituen! Hasieran etxeko gela batean hasi ginen musika jotzen, nik gitarra jotzen nuen, geroago lokal bat utzi ziguten. Lagun batek irrati igorle bat sortu zuen faszikulu batzuekin, eta nik gitarra bertan entxufatzen nuen.

- Umetan zer izan nahi zenuen?

Hasieran musikaria izateko ametsa nuen, baina ikasketak jarraitu ahala, musika alde batera utzi nuen eta nire psikologia ikasketak burutu nituen. Psikologia ateratzea asko kostatu zitzaidan, eta bukatu ostean ohartu nintzen ez zela nire karrera, bokazio kontua zela eta nik ez nuen nire burua alor horretan ikusten. Grafitiak ere egiten nituen eta nire en-



45 urte ditu, eta bi anai, bera da txikiena. Mireia Arginzonizekin ezkondua, 4 hilabeteko alaba dute, Janis. Ermuan jaio zen, eta gurasoak Espejakoak dira (Salamanca). Psikologia ikasketak burutu zituen Donostiako EHUko fakultatean, baina 2011-2012 inguruan hasi zen argazkilaritzarekin maitemintzen.

presa sortu nuen, Hormargo zuen izena. Zenbait urte eman nituen artearen inguruan filosofatzen Tono nire lagunarekin! Baina duela 2 urte inguru Filme Trailer argazkilaritza tailerra sortu nuen. Egia esateko, Arte Ederrek gehiago deitzen ninduten Psikologiak baino.

- Non egiten duzu lana?

Berrizen dagoen Filme Trailer argazkilaritza tailerrean. Hau guztia posible izateko izugarritzko laguntza izan nuen. Tailerraren ba-

rruan zenbait sail kokatzen dira: estudioko lanak, kalitatezko inpresioak, laborategi digitala... Argazkilaritza kimikoko saila ere badut, antzinako prozesuak. Tailerrak ematen hasi naiz otsailan; hasiberrientzat emango dudun tailerra da, argazkilaritzaren hastapenak. Lan honetan oso gustura sentitzen naiz, tailerra badoa bere bidea egiten eta nire proiektuak ere aurrera egiten hasi dira, ia bukatzeaz daude; baserri baten ingu-

ruan eta abar... Pertsonak bere ohiko inguruan ateratzea gustatzen zait, baina ikuspegi singular batetik, hau da, pertsonaren izaerari erreparatzen diot: "Etnografia poetica". Espero dut nire ezagutzak aurrera egiteko aukera izatea hau.

- Alaba izan zenuenetik zer aldatu da zure bizitzan?

Nire bizitzan gauzak aldatzen doaz eta horretaz ohartu naiz. Egunak pasa ahala behar duzu, egunetik egunera gehiago maite duzu, bere irribarretxoek dakarten xarma maitagarria da. Orain 3 gara, hiruki baten pare pentsatzen hasi gara. Nire burua ardurasuagoa da, bai umearengatik eta baita nirengatik ere.

- Irakurtzea, zinea, irrati edo telebista?

Zinea eta irakurtzea.

- Bidaia bat nora?

Japon, Patagonia...

- Bizio bat?

Gozoa, txokolata.

- Bertute bat?

Distantzia hartzen dut gai-nontzeko pertsonengan.

- Musika mota bat...

Jazz musika, pop... Momentuaren arabera.

- Zure bizitzako egunik zoriontsuena?

Nire alaba jaio zen eguna, bere azala nirearen kontra izan nuen tartetxo hori, koipez betea... Dena den, egun guztiek dute bere puntutxoa.

- Eguneko momentu bat...

Etxeko bi neskekin ohean nagoen momentutxo maitagarri eta goxo-goxo hori.

Armaia Arginzoniz

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es
egolek

electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Iñigo Ugena, kirolaria:

“Zaintzen ez bazara, markak ez dira agertuko”

Duela 4 urte hasi zen pertika-jauzia praktikatzen, eta 10 domina baino gehiago irabazi ditu. Duela gutxi, baina, bere garaipen goxoenetako bat lortu du Iñigo Ugena ermuarrak: Atletismo Federazioak ontzat eman dio abenduan lortutako errekorra.

- Zergatik eman dizute 4 metroko errekorra hain berandu? Zer gertatu da?

Errekorra oporretatik bueltan egin nuen eta IAAFk (Atletismoko Federazio Elkartea Internazionala) esaten du kadetetik jubenilera kategoria aldaketa ez dela abendura arte egiten. Errekorra abenduaren 23an egin nuen, eta Euskadiko Federazioa ez zuten horretaz konturatu.

- Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzen? Zergatik?

Zortzi urterekin hasi nintzen atletismoan, anaiak atletismoa egiten zuelako, baina pertika orain dela 4 urte egiten hasi nintzen oso dibertigarria iruditzen zitzaidalako.

- Zenbat sari jaso dituzu guztira? Euskal Herrikoak eta Espainiakoak?

10 domina baino gehiago ditut guztira. Espainiako hiru domina ditut: brontzezko bi eta zilarrezko bat. Eta Euskadiko txapelketako 8 domina ditut.

- Espainiako txapelketako oso gogorak izaten dira?

Beno. gogorak ez. Azkenean beste konpetizio bat da, baina urduri jartzen naiz eta horrek txapelketa zailtzen du.

- Fisikoa asko landu behar da?

Bai, fisiko egokia eduki behar da, azkenean zaintzen ez bazara markak ez dira agertuko.

- Nolakoak dira entrenamendu saioak? Bakarka?

Pertika egiten dudanean normalean entrenatzailea eta ni bakarrik egoten gara, baina besteetan entrena-



menduko taldearekin entrenatzen dut.

- Entrenatzaileen inguruan zerbait esateko?

Lehenengo entrenatzailea Lolo izan zen eta berak atletismoko oinarriak erakutsi zizkidan. Pertika egiten hasi nintzenean beste entrenatzaile batekin entrenatzen nuen, Ortuellan. Orain Antonio Cidekin eta Naiara Larrearekin entrenatzen dut, Naiararekin pertika.

- Familia beti ondoan?

Bai, familia beti egon da hor, ahal duten konpetizio

guztietara joaten dira eta etxean beti lagundu egin didate momentu on eta txarretan.

- Zure bizitzako momentu onen bat gogoan duzu?

Bai, nire Espainiako lehenengo txapelketa. Gogoan dut konturatu gabe nire marka hobetu nuela eta bat-batean bakarrik hiru lehiakide gelditzen ginen. Nulo bategen erabaki zuen bigarren eta hirugarren postua, eta azkenean bigarren postua lortu nuen.

Amaitia Arginzoniz



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379


SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI 
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Helikoptero gurasoak

Onartu behar dut *Helikoptero gurasoak* terminoa entzun nuenean ez zitzaidala gustatu. Susmoa hartu nion zalantzan jartzen zituela, mespretxuz, seme-alaben ardura hartzen eta haien beharrei adi egoten garen gurasoak. Adin txikikoen lehen defendatzailea izan zen Javier Urrak zera esaten du: "Umeek ez gaitzatela ikusi arakatzaille gisa edo, are okerrago, txotxongilo baten hariak mugitzen dituen bezala". Nire ustez, garrantzitsua da gure seme-alabei segurtasuna transmititzea, eta haiekin segurtasun-lotura harremana ezartzea. Haiek antzematen badute behar gaituztenean ez gaudela (batez ere euren bizitzetako lehen urteetan), ez da agertuko guraso eta seme-alaben artean beharrezkoa den segurtasun-lotura emozionala.

Baina gauza bat da segurtasun-lotura oinarria eraikitzea, eta beste bat gure seme-alabak txotxongilo bihurtzea. Gurasoen ardura euren seme-alaben bizitzetan presente egon eta planifikatzeko muturreraino eramaten duten zenbait jarrera daude: seme-alaba balio handiko ondasuntzat hartzea; seme-alabek hanka sartzearen beldur egotea, eta krisiaren eraginez gizarteak eskatzen diena euren kabuz lortzeko gai ez izatearen beldur egotea; eta gizartean trebeak diren seme-alabak izateko beharra izatea, eskolaz kanpoko ekintza-zerrenda amaigabeen islatzen dena.

Javier Urrak esaten du segurtasun-lotura egokia duten pertsonen "erabakiak hartzen dituztela, arazoei konponbidea topatzen



Juan Carlos Martin

dietela, banantzei eta galerei aurre egiten dietela, arduratsuak direla eta euren ekintzen ondorioak euren gain hartzen dituztela, euren aukeraketen eta helburuen aurrean seguru samar agertzen direla eta euren emozioak kudeatzen dakitela".

Bitxia badirudi ere, seme-alabek ez sufritzeko haiek larregi babestu dituzten gurasoak dira handik denbora batera ez dakitenak euren seme-alaba zalantzatiekin zer egin, erabakiak hartzeko gauza ez diren seme-alabekin, euren erantzukizunak euren gain hartzeari uko egiten diotenekin eta ez dituztenekin euren frustrazioak onartzen. Eskola jazarpena pairatzeko jomuga erraza.

“ Gauza bat da segurtasun-lotura oinarria eraikitzea, eta beste bat seme-alabak txotxongilo bihurtzea ”

| | |
|---|--|
| T XALAPARTA ABERNA | <ul style="list-style-type: none"> - Itsaskabra pudina. - Txipiroiak. - Piper beteak: okela edo onddoak. - Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak. - Redondo saltsan. - Sagar tarta. - Gazta tarta. - Tortila patata... |
| Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak! | |
| Erdikokale 13 (Ermua) | ENKARGYAK 943 030 299 |

| | |
|---|---|
|  autartetik ostiralera 9:00-12:00 15:00-19:00 larunbata 8:30-13:00  943170474 | ileapaindegia Silvia peluqueria  688819336 |
|---|---|

| | |
|--------------------------------------|---|
| solozabal tabakoak |  |
| torrekua 1 tel./fax: 943 17 07 33 | |

| | |
|---|----------------------------|
|  | optika ITZE |
| ✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA | |
| Probaleku, 7 | Tfnoa. 943 17 46 51 |



Martxoaren 1ean Zorionak Ander!!!
4 urte betetzen dituzun egunean, etxeko denon partez muxu eta besarkada handi bat!!! Ondo pasa txapeldun!!!



Martxoaren 2an Zorionak Unai zure 13.
urtebetetzean. Musu handi bat amatxo, aitatxo eta Malenen partez.



Martxoaren 1ean Zorionak Telmo!
Muxu handi bat etxeko denon partez. Ondo pasa zure bostgarren urtebetetzean!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko,

bidali mezua:

drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Martxoaren 22a.**

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**MALLABIA
1955**

Argazki hau Mallabiko tren geltokian aterata dago, Ispilla baserri azpikaldean zegoen tren geltokian. Honek bi etxebizitza zeuzkan. Karnabaletan auzoko umeak elkartu eta etxez etxe ibiltzen ziren. Gozokiak ematen zizkieten baserrietan, dirurik ez.

Argazkian agertzen dira: Jabier Astarloa, Mari Tere Astarloa, Jose Antonio Bilbao, Mari Tere Antxia, Luis Mari Pradera, Miren Antxia, Rosarito Mujika, Jesusa Azagirre, Laurita Antxia eta Juan Antxia.



Sta. Agedako herri abesbatza Zubiaurren, Juana Mari dendaren erakusleiho parean. Atzetik aurrerako norabidean: Olga Olañeta, M^a Jesus Berrizbeitia, Karmele Isasi-Isasmendi, Manolo Conde, Inma Pagaldai, Agustin Bilbao, Idoia Olaizola, Angel Mari Gastón, Luciano Goiri, Miren Bego Idigoras, Fermin Urreta, Jon Idigoras, Benito Ramos, Marisabel Zubizarreta, Luis Mari Izagirre, Jabi San Ildefonso, Marcelo Totorika, Fernando Markina, Roberto Tomé, Rafa Totorika, Joni Isasti, Miguel Fernández, Jose Luis Mas, Iñaki Miranda, Javi Lejardi, Carmelo Intxaurre, Jose Angel Ciarsolo, Jose Ignacio Telleria, Luis Mari Bergaretxe eta umeetako batzuk, Gabriel eta Idoia Urzainki.

**ERMUA
1973****Enter**

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Desgaitasunak dituztenak, haur-kotxeekin doazenak, hanka apurtzen dutenak, auzo altuetan bizi direnak, jende nagusia... erositasunez mugi daitezke herriko kaleetan?

Uste duzu Ermua egokituta dagoela desgaitasunak dituzten bizilagunentzat?



Ez dago egokitua, Zubiaurre ikusi besterik ez da egin behar! Zuloz beteta dago eta oso labainkorra da, eta jende nagusia beldurrez doa, batez ere euria egiten duenenean.

Rosa Murillo, 39 urte



Lehen baino hobeto dago, ni umearen haur-kotxearekin joaten nintzenean baino hobeto, behintzat. Hala ere, gabezia asko daude oraindik, Ermua hesi arki-tektonikoz beterik dago.

Ana Devesa, 43 urte



Penagarria da, Udalak kon-tuan izan beharko gintuen nire egoeran gaudenok. Tarte apur bat dagoen lekuan, kotxe edo kamioi bat ipintzen dute. Badira tokiak igarotzeko lekua falta dutenak, VI Mendeurrenako igarobideak maldan daude, semaforok oso denbora gutxi ematen digute bidea gurutzatzeko... %77ko desgaitasuna dut, eta oraindik ez dut lortu ezta aparkatzeko txartelik ere!


Hermógenes Puerto, 66 urte



Ez dago egokitua. Zubiaurretik VI. Mendeurrenara joateko, esaterako, sekulako buelta eman behar da: Torrekuatik ezin da, Sagarratik ere ez... Eskailera mekanikoak daude, baina gurgildun aulkia ezin da hortik igo, eta ez du balio jaisteko, beraz... Irogailuak dira konponbiderik onena. Bidezorua ere... Erdikokale oso labainkorra da euriarekin.

Monty, 52 urte

Tasio eta Sabino



ZINEA

4tik 6ra
 11tik 13ra
 18tik 20ra
 25etik 27ra
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 2
 Hilak 9
 Hilak 16
 Hilak 23
 Hilak 30
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Antzokian. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 5
 Hilak 12
 Hilak 19
 Hilak 26
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Antzokian. 17:00etan.

ERAKUSKETA

Martxoaren 20tik apirilaren 9ra
 Margoa: Eduardo Alsasuaren lanak.
 Lobiano Kultur Gunean.
 18:00etatik 20:00etara.

MUSIKA

Hilak 4
 Musika eta dantza jaialdia 16:00etan.
 Antzokian. Doan.

Hilak 17
 Kontzertua: Juan Perro.
 22:15ean. Antzokian.
 Sarrera: 12€

Hilak 18
 Blues kontzertua:
 Nick Moss band.
 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean.
 Sarrera: 8€

ANTZERKIA

Hilak 3
 "El Rey", Willy Toledo, Javier Gutiérrez eta Luis Bermejorekin.
 22:15ean. Antzokian.
 Sarrera: 15€

Hilak 10
 Antzerkia-Musika:
 "Abandónate mucho", Las XL taldearen eskutik.
 22:15ean. Antzokian.
 Sarrera: 10€

Hilak 31
 Antzerkia: "25 años no es nada... pero dan para mucho", Izarraitz taldearen eskutik.
 22:15ean. Antzokian.
 Sarrera: 8€

INAUTERIAK

Otsailaren 23an, osteguna. Eguen Zuri.
 - 15:30ean: Oilarraren jokoa.
 - 17:00etan: Diskofesta: Xaibor DJa.

Otsailaren 24an, ostirala. Hartza eguna.
 - 18:00etan: Kalejira.

Otsailaren 25ean, larunbata.
 - 12:30ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.
 - 12:30an: Kalejira: Txindurri taldea.
 - 17:30ean: Umeentzako txokolatada.
 - 18:00etan: Umeentzako erromeria: TTR taldea.
 - 19:00ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.
 - 19:30ean: Umeentzako mozorro lehiaketa.
 - 23:00etan: Dj Festa: Los 40 principales.

Otsailaren 28an, asteartea.
 - 16:00etan: Umeentzako diskoteka.
 - 18:00etan: Kale ikuskizuna: "Asmakizun asmatzaileak".
 - 19:00etan: Kalejira: Ustekabe txaranga.
 - 23:00etan: Dj Festa Oihan Vegarekin.

Ekitaldi guztiak Orbe Kardinalaren plazan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 4
 Ipuin kontaketa ingelesez. 17:30ean.
 Lobianon.

Hilak 11
 Ipuin kontaketa. 17:30ean. Lobianon.

Hilak 24
 "Tipi, Tapa, Korrika!", Pirritx, Porrotx eta Marimototsen eskutik.
 17:00 eta 19:00etan.
 Antzokian. Sarrera: 6€

BESTELAKOAK

Hilak 11
 Sagardo eguna. 11:00etatik aurrera. Plazan.

Hilaren 13tik 19ra
 Kazolatxoaren astea. Ermuko tabernetan.

Patxi López



**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian tokiko**

PRO arraindegia



**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
 ERMUA

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaza
 943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA



**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 Hertz Klinika - Clínica Dental
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Periodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, beheka 943 17 71 34
 www.irale.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13, beheka
 48260 ERMUA (Bizkaia)

san pelayo
 clínica dental hertz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hertz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz García Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hertz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hertz klinika berritu eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 • Elikagai biologikoak
 • Terapia naturalak
 • Naturopatarekin kontsultak
 • Masajeak
 • Dietistarekin kontsultak
 • Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 beheka esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

BERBETAN JARDUNALDIAK

Euskaren gaineko Gogoetak

LOBIANO
KULTUR
ETXEAN
Astearteetan
19:00etan

MARTXOAK
14

Hitzaldia



Non jarri behar dugu arreta euskaraz gehiago hitz egin ahal izateko?? EMUNeko Inaxio Usarralderen eskutik. Plaza mugatuak!! izena eman 688632874 telefonoan, whatsapez, edo euskal-birusa@gmail.com helbidean.



Hitzaldia

MARTXOAK
28

Gurea moduko herri eta auzoetan egin diren esperientzia aberasgarriak ezagutzeko eta trukerako aukera. Izaera ezberdin baina helburu komun asko duten bi egitasmo proposatzen dizkizugu. Agurain, 75 ordu euskaraz eta Egia, Egian euskaraz bizi nahi dugu ekimena. Asier Lafuente eta Aitziber Gurutzia garen eskutik. Topaguneko langilea den Manuel Moreno ermuarra egongo da moderatzaile.

APIRILAK
4

Elkarrizketa
musikatua



Julen Telleria eta Iزارo Andresen Eskutik

antolatzaileak



babeslea

